

## 60.6. Idazlanaren eredu

### **NOLAKO ZURA, HALAKO EZPALA?**

Gure ama artista da pasadizoak kontatzen: bizitakoa baino askoz hobea izaten da kontakizuna bera! Ikustekoak dira haren imintzioak! Sekulako graziaz imitatzen ditu besteen keinuak eta ahotsak, eta maisuki erabiltzen du gorputz-adierazpena. Momenturik egokienean egiten ditu isiluneak, eta beti aukeratzen ditu barrea eragiteko hitz aproposenak.

Nik, berriz, askotan galdetzen diot neure buruari zer egin ote diodan Genetika Andereari. Izan ere, nik ez daukat inolako graziarik pasadizoak kontatzeko: istorioaren puntu batera heltzean, ohartzen naiz zerbait esan gabe utzi dudala, eta hori jakin gabe kontakizunak ez duela inolako graziarik. Beraz, han hasten naiz: istorioan atzera egiten, berriro lehengoak azaltzen xehetasun hori gehitzeko... Katramilatzen, alegia. Eta, noski, azkenean, ez dugu pasadizoagatik egiten barre, anekdotak kontatzeko nire trakeskeriagatik baizik!